

“HITZARMENAK APLIKATU ETA DERRIGORREZKO ARBITRAJEA-RI UKO EGIN”

ELA-k lan-baldintzen salbuespenari buruzko desadostasunak ebazteko Euskal Batzordea sortzeko dekretua errefusatzan du

Berez gobernua jardunean dagoela, hots, agintaldiko azken egunetan, PSE hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzen salbuespenari buruzko desadostasunak ebazteko euskal batzordea sortzeko dekretua tramitatzen hasi da; batzordeak derrigorrezko arbitrajea dakar berarekin.

ELAk honakoa adierazi nahi du:

- ***Hitzarmen kolektiboetako lan-baldintzen salbuespena egiteko desadostasunak ebazteko euskal batzordea sortzeko dekretua berehala erretiratzea eta geldiaraztea exijitzen dugu.*** Legeak ez du derrigortzen gurean Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta-Batzorde Nazionalaren parekoa sortzea, eta horrenbestez, hau arautzea jardunean den Jaurilaritzaren borondatez baino ez da etorri.
- Dekretuak EAEn ezarri egin nahi du Rajoyren erreformatik negoziazio kolektiboaren aurka doan puntu nagusietako bat: hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeko derrigorrezko arbitrajea. Hain zuzen, sinestezina da PSE hemen derrigorrezko arbitrajearen aitzindari bihurtzea, are gehiago PSOEk inkonstituzionalitate errekurtsioa sartu baitu erreformaren puntu honekiko, alderdien autonomia urratzen duela uste izanik.
- Dekretu hau gabe EAEn ezinezkoa litzateke hitzarmen baten salbuespena egitea alderdien arteko adostasunik gabe, edota alde bien borondatez eskatutako arbitrajerik gabe. Haatik, dekretuarekin hirutako organo batek (hots, administrazioak, sindikatuek eta patronalak osatutako erakunde bat, non administrazioak kalitateko botoa duen) edo arbitro batek ebartziko du hitzarmena ez aplikatzeko kasuei buruz.
- Rajoyren erreforma laboralak ezarritako mekanismoek langile-klasearentzat kaltea besterik ez dakarte: prekarietatea eta segurtasun eza.
- Patxi Lopezen gobernuaren jokabidea salatu nahi dugu, jardunean egonda onartu baitu dekretu hau; edukia ere salatzeko modukoa da, negoziazio kolektiborako eskubidearen aurkakoa baita.
- Bai 3/2012 legea, uztailaren 6koa (erreforma laboralari dagokiona), bai Hitzarmen Kolektiboen Kontsulta-Batzorde Nazionalaren araudia, errekurrituta daude, Auzitegi Konstituzionalean eta administrazio-auzietarako bidean, hurrenez hurren.
- Eragile sindikalak eta patronala dira negoziazio kolektiboko protagonista; beraz, hirugarren batek negoziazioko gaiei buruz hartutako erabaki lotesle bat negoziazio kolektiborako eskubideari egindako eraso eta esku-hartze onartezina da; alderdien autonomia inoiz ez bezala urratzen du.
- Erakunde berriarekin hitzarmen guztietan salbuespena hedatzeko behin betiko bidea ireki liteke, hitzarmena ez aplikatzeko zioen malgutzea aintzat hartuz gero (galerak izatea ere ez da beharrezko...).
- Halaber, gurean badugu nahikoa tresna bitartekaritzarako eta kontziliaziorako.
- Oraingoan ere agerian geratzen da izatezko akordio bat dagoela agintzeko aukera duten alderdien artean: patronalari ahalik laguntza handiena eman nahi diote soldatak eta lan-baldintzak okertzeko xedea bete dezan.
- Horrenbestez, ***Eusko Jaurlaritza berriari dei egiten diogu organo hau sortzeko erabakia bertan behera utz dezan, izan ere, erreforma laboralari men egitea bailitzateke, baita herri honen autogobernuaren aurkako eraso ere.***

“ NI INAPLICACIONES DE CONVENIOS, NI ARBITRAJES OBLIGATORIOS ”

ELA rechaza el proyecto de decreto de creación de la Comisión Vasca de Resolución de Discrepancias sobre inaplicación de condiciones de trabajo

El PSE ha aprovechado sus últimas fechas en el gobierno, ya en funciones, para iniciar la tramitación del Decreto de creación de la Comisión Vasca de Resolución de Discrepancias sobre Inaplicación de Condiciones de Trabajo de los convenios colectivos, que incorpora el arbitraje obligatorio.

Desde ELA queremos manifestar lo siguiente:

- ***Exigimos la retirada inmediata y la paralización del decreto de creación de la Comisión Vasca de Resolución de discrepancias sobre inaplicación de las condiciones de trabajo de los convenios colectivos.*** La creación del equivalente a la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos en Euskadi no viene impuesta por la Ley, por lo que su regulación se produce por mera voluntad del Gobierno Vasco en funciones.
- El Decreto pretende introducir en la CAPV uno de los principales elementos de la reforma de Rajoy que más colisiona con el derecho a la negociación colectiva: el arbitraje obligatorio para inaplicar el convenio colectivo. En ese sentido, resulta increíble que el PSE se convierta en impulsor de los arbitrajes obligatorios en la CAPV después de que el PSOE haya interpuesto recurso de inconstitucionalidad frente a ese concreto aspecto de la reforma, por entenderlo contrario a la autonomía de las partes.
- Sin este Decreto, en la CAPV resulta imposible inaplicar un convenio sin un acuerdo entre las partes o sin su sometimiento voluntario a un arbitraje. Con este Decreto, un órgano tripartito (administración, sindicatos, patronal; con voto de calidad de la administración) o un árbitro decidirán sobre las inaplicaciones del convenio.
- Los mecanismos de la reforma laboral aprobada por Rajoy, como ya está quedando de manifiesto, no aportan más que precariedad e inseguridad para la clase trabajadora.
- Denunciamos las formas empleadas por el Gobierno de Patxi Lopez al aprobar este decreto estando en funciones y denunciamos también su contenido, claramente contrario al derecho a la negociación colectiva.
- Recordamos que tanto la Ley 3/2012, de 6 de julio, que regula la Reforma Laboral como el Reglamento de la Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos se encuentran recurridos ante el Tribunal Constitucional y en el orden contencioso administrativo, respectivamente.
- Los agentes sindicales y la patronal son los protagonistas de la negociación colectiva, por lo que la decisión vinculante de un tercero sobre las materias de negociación supone un ataque y una injerencia sin precedentes en el derecho a la negociación colectiva, atacando la autonomía de las partes como nunca antes.
- Con este nuevo organismo se puede abrir la vía definitiva para la inaplicación generalizada en todos los convenios si se tiene en cuenta la flexibilización en las causas (no hace falta ni siquiera tener pérdidas....) para poder solicitar la inaplicación.
- De igual manera entendemos que ya existen en este país suficientes instrumentos para la mediación y la conciliación.
- Volvemos a constatar el acuerdo de facto que existe entre los partidos con opciones de gobierno para desarrollar todos aquellos instrumentos que faciliten y ayuden a la patronal en su objetivo de devaluar salarios y condiciones laborales.
- Así pues, ***hacemos un llamamiento al nuevo Gobierno Vasco para que dé marcha atrás en la creación de un órgano que supone la aceptación de los contenidos de la Reforma Laboral, además de un ataque contra el autogobierno de este país.***